

2011n mantendu egiten da Bioteknologiako I+G enplegua Euskal AEn, gastua %1,7 murriztu da

Barne-gastua Bioteknologiako I+Gn 85,9 milioi izan ziren 2011n

Barne-gastua Bioteknologiako I+Gn 85,9 milioi izan ziren 2011n Euskal AEn, Eustaten datuen arabera 2010eko gastuaren aldean bioteknologiako barne-gastua %1,7 murriztu da; I+G barne-gastu guztiaren %6,3 izan zen, aurreko urtean %6,4 izan zelarik.

Langileak, 1.500 pertsona; dedikazio osoko baliokidetzan, 1.033. I+G langile guztien %5,8 da, aurreko urtean baino %0,5 gehiago. Nabarmenezkoa da emakume-kopurua: bioteknologian lanaldi osoan ari direnen %65. Ikertzaileak 753 dira, 2010ean (797) baino %5,6 gutxiago.

1. taula: Bioteknologiako barneko I+G: gastuaren eta langileen bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2007-2011

	2007	2008	2009	2010	2011
Barneko I+Gko gastuak					
Guztira (mila eurotan)	80.842	91.583	80.557	87.401	85.941
Urteko Gehikuntza (%)		13,3	-12,0	8,5	-1,7
Langileak (DOB)					
Guztira (mila eurotan)	779,2	826,8	898,9	1027,3	1.032,9
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,7	14,3	0,5
Ikertzaileak (DOB)					
Guztira (mila eurotan)	640,6	679,9	739,7	797,0	752,6
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,8	7,7	-5,6

DOB= Dedikazio Osoko Baliokidetzak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

75 erakunde aritu ziren bioteknologiako ikerketan 2011n; 49rentzat jarduera nagusia edo bakarra zen, bioteknologiako I+G barne-gastuaren erdia pasa. 75etik 63 enpresa sektorekoak dira.

Enpresa sektorean jaitsi egin da barne-gastua

Aurreko urteetan bezala, enpresetan da Bioteknologiako I+G guztizko barne-gastuaren portzentajerik handiena (%60,8), 2010ean (%63,1) baino gutxiago bada ere.

Gainerako sektoreek, Goi mailako irakaskuntzak eta Administrazio publikoak, gastuaren gainerako %39,2 egikaritu zuten 2011n; %36,9 2010ean.


Administrazio publikoak bioteknologiako jardueren %63,5 finantzatzan du

Funtsen jatorriaren arabera Bioteknologiarekin lotutako barne I+G jarduerak batez ere Administrazio Publikoak (%63,5) eta enpresek (%26,0) finantzatu zituzten Gainerakoa finantzatu zen atzeritik (%5,4), Goi mailako irakaskuntzatik (%3,2) eta Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetatik (%1,9) etorritako funtsekin.

Bioteknologiako ikerketaz lortutako produktuak batez ere Giza osasunean (%77,3) eta Ingurumenean (%5,2) erabiltzen dira. Elikadura, Industria, Animalien osasuna eta akuikultura, Nekazaritza eta baso-ekoizpena arloek gainerako %17,5 antzeko portzentajeekin banatzen dute.

Produktu eta prozesu bioteknologikoen garapen eta merkaturatzea zailtzen duten oztopo nagusiak: I+G egiteko denbora/kostua erlazioa (%94,7) eta Kapitalerako irisbidea (%92,0).

1. grafikoa: Bioteknologiako I+G garatzeko oztopoak (%) 2011



Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

Ohar metodologikoa:

I+G estatistika bioteknologian 2007tik Ikerkuntza eta Garapen estatistikaren modulu erantsi gisa jasotzen da.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Pilar Vázquez Sancho

Tel.: +34-945-01 75 46 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko I+G bioteknologiari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)